



Bikaintasuna Euskal Ikasketetan: mugimenduak eta mugak euskal kulturan

Uzt. 19 - Uzt. 20 2021

Kod. K12-21

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2021

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 19 - Uzt. 20 2021

Kokalekua

Miramar Jauregia


Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Uda Ikastaroa aurrez aurre ospatuko da eta online zuzenean parte hartzeko aukera ere egongo da ZOOM bidez. Matrikula prozesuan nola parte hartuko duzun aukeratu: aurrez-aurre edota online zuzenean.

Euskara eta euskal kultura nazioartean sustatu eta hedatzea du helburu Etxepare Euskal Institutuak. Gaur egun, 36 irakurletza ditu Euskal Herritik kanpoko unibertsitateetan, eta horietan euskara eta euskal kulturako 30 irakasle ari dira lanean. Horiez gain, 9 katedra ere sortu ditu, beste horrenbeste unibertsitateetan. Ikastaro honek egungo irakurleen eta etorkizunekoek prestakuntza sendotu nahi du, eta horretarako, euskararen eta euskal kulturaren jakintza arlo desberdinetako adituak gonbidatu ditu, aurreko urteetako bide beretik. Hortik “Bikaintasuna Euskal Ikasketetan XI” izenburua.

Aurtengoan muga eta mugimendua izango ditugu hizpide eta bizi dugun garai honetan kontzeptu horien inguruko hausnarketa eta ikasketek euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntzan duten eragina eta irakaskuntza horri egin diezaioketen ekarpena aztertuko dugu. Horretarako hizkuntzaren, musikaren, literaturaren eta oro har kulturaren esparruan mugek eta mugimenduak zentzu zabalean duten tartea izango dugu mintzagai.

Helburuak

Mugaren eta mugimenduaren kontzeptuetara hurbiltzea.

Euskal gizartean eta kulturaren eragina duten eta izan duten mugak eta mugimenduak ezagutzea.

Euskal kulturaren muga eta mugimendu kontzeptuen inguruko hausnarketa eta ikerketek egin duten ekarpena hurbiltzea.

Mugek zentzurik zabalenean euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntzan duten eragina eta irakaskuntza horri egin diezaioketen ekarpenak aztertzea.

Euskal kulturako mugimenduen berri ematea nazioartean euskara eta euskal kultura irakasten ari diren edo horretan jardungo duten irakasleei.

Etxepare Euskal Institutuko irakurletza sareko irakurleen jardunaren berri ematea eta esperientziak partekatzea.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2021-07-19

09:00 - 09:15	Erregistroa
09:15 - 09:25	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Garbiñe Iztueta Goizueta Etxepare Euskal Institutua - Euskara sustatzeko eta hedatzeko zuzendaria
09:30 - 10:30	“Pasabideak, etenak eta lotuneak: mugaren paradoxak globalizazio garaian” Aitzpea Leizaola Egaña EHU - Irakaslea
10:30 - 11:30	“Euskara kanpoko hizkuntzalari eta ikerlarien begietan” Oxel Uribetxebarria Lete EHU - Doktoregaia eta irakaslea
11:30 - 12:00	Atsedena
12:00 - 13:00	“Atzerriko euskara ikasle izatetik euskal literaturako ikerlari/itzultzaile izatera: mugak eta erronkak” Nami Kaneko Irakaslea. Fukuokako Unibertsitatea - ZOOM BIDEZ
13:00 - 13:15	Sintesia
16:00 - 16:45	“Muga batetik bestera, euskal film laburretan barrena” José M^a Muñoz López Euskadiko Filmatagia - Kimuak programa
16:45 - 17:30	“Euskararen ikaskuntzatik ama hizkuntzara bidaia” Maitena Duhalde de Serra EHU - Irakaslea

2021-07-20

09:15 - 10:15	“Konektografia eta paisaiak: euskal idazleak mugimenduan” Paulo Kortazar Billelabeitia EHU - irakaslea
10:15 - 11:15	“Mugak eta mugimenduak euskal artean” Ismael Manterola Ispizua EHU - Irakaslea
11:15 - 11:45	Atsedena
11:45 - 12:45	“Euskal raparen mugimendu eta mugei buruzko hausnarketa historiko-antropologikoa” Eric Dicharry Lavie UPPA / Etxepare Euskal Institutua - Irakaslea
12:45 - 13:00	Sintesia

16:00 - 16:45	“Euskal emakumeak: mugak eta mugimenduak” Paula Motrico San Emeterio Chicagoko Unibertsitatea / Etxepare Euskal Institutua - Irakaslea
16:45 - 17:30	“Mugaz gaindiko kultur egitasmoak” Iasone Parada Garmendia Artedrama - Ekoizlea
17:30 - 17:45	Itxiera Garbiñe Iztueta Goizueta Etxepare Euskal Institutua - Euskara sustatzeko eta hedatzeko zuzendaria

Zuzendaritza



Garbiñe Iztueta Goizueta

Etxepare Euskal Institutoa

Garbiñe Iztueta Aleman Filologian eta Ingeles Filologian lizentziatua da, eta Filologia Modernoan doktorea, literatura konparatuan. 2017az geroztik Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendaria da Etxepare Euskal Institutuan. Aurretik Euskal Herriko Unibertsitatean egin du ibilbide luzea, Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpengintza saileko irakasle gisa (1998-2017), baita Aleman Filologiako koordinatzaile (2014-2017) eta Letren Fakultateko Nazioarteko Harremanetarako eta Mugikortasun Programetarako dekanorde (2007-2011) moduan ere. Honako gaiak izan ditu hizpide eta aztergai bere proiektu eta argitalpenetan: Alemania eta Euskal Herriaren arteko kulturartekotasuna, Euskal Herriaren irudia alemanezko bidaia-deskribapenetan, espazioa, emozioa eta aberria alemaniar literaturan, botere espazioak Herta Müller idazlearen prosan eta identitatea Alemaniar Batasunaren ondorengo literaturan.

Irakasleak



Eric Dicharry Lavie

Eric Dicharry (Baiona, Lapurdi, 1969ko uztailaren 7a) antropologoa, artista eta idazlea da. Antropologian doktorea (EHESS, Paris), ikertzailea, poeta, artista eta erakusketa-komisarioa da. Mintzo askotako sortzailea eta ikerlaria da. Biarritzen bizi da gaur egun. Obra mamitsua dauka lau adarretakoa : azterketak lehenik, sorkuntza poetikoaren saila gero, sorkuntza artistikoaren saila azkenean.



Maitena Duhalde de Serra



Nami Kaneko

Nami KANEKO literatur itzultzaile eta ikerlaria da. Ikasketa Hispanikoetako lizentziatura eta masterra egin zituen Tokyo University of Foreign Studies-en, eta doktorego ikasketak unibertsitate berean eta UPV/EHUko Literatura Konparatua eta Literatur Ikasketak programan. Gaur egun, Fukuoka University-ko irakaslea da. Itzulpen hauek eginak ditu euskaratik japonierara, besteak beste: Kirmen Uriberen Bilbao-New York-Bilbao (2012) eta Mussche (2015, Japoniako Itzulpen Onenaren Saria eta Etxepare-Laboral Kutxa Itzulpen Saria), Bernardo Atxagaren Soinujolearen semea (2020, Japoniako Itzulpen Onenaren Sarian finalista) eta Iban Zalduren “Bibliografia” (2020). Ikerkuntzari dagokionez, eremu eleanizetan eta hizkuntza gutxituetan garatzen den literatura eta itzulpenaren arteko harremana du ikergai nagusi, eta ikuspegi horretatik aztertzen du euskal literatura.



Paulo Kortazar Billelabeitia


EHU-UPV

Hizkuntza Modernoetan graduatua Deustuko Unibertsitatean, Chicagoko University of Illinois-en masterra egin zuen Espainiar Hizkuntzalaritzan eta gaztelerako eskolak ere eman zituen garai hartan. Azken bi ikasturteetan Etxepare Euskal Institutuko irakurle sareko kide izan da, Chicagoko Unibertsitatean. Unibertsitate horretan gaztelerako eskolak ere eman ditu. Bere lan ildo nagusiak dira: hizkuntzaren jabekuntza eta elebitasunaren prozesatzea haurretan. Donostiako Basque Center-eko Cognition, Brain and Language (BCBL) BabyLab-en ere aritu zen ikertzaile laguntzaile gisa.



Aitzpea Leizaola Egaña

UPV/EHU



Ismael Manterola Ispizua

MHLI. UPV/EHU

(Zumaia, 1966). Arte Historian lizentziatu zen Valentziako Unibertsitatean eta doktoregoa EHU/UPVn gauzatu zuen Arte Historian. Egun EHU/UPVko Arte Ederren Fakultatean Artearen Historia irakasten dihardu. Egunkarian, Berrian eta Garaegunkariko Mugalari gehigarrian arte kritika idatzi du. Gure Artea 2006 (2006) eta Bilbea eta Hari askeak: euskal artearen bi bildumen arteko elkarrizketa (2014) izeneko erakusketak antolatu ditu. Bere agitalpenen artean daude, besteak beste, 2012an UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren eskutik kaleratutako Raemaekerseren Marrazkiak: Britainiar propaganda Espainian eta Euskal Herrian Lehen Mundu Gerran liburua eta Autonomía e ideología (2016) liburuko "Compromiso o especificidad del medio. Arte en el País Vasco en las últimas décadas del siglo XX" atala.



Paula Motrico San Emeterio

Hizkuntza Modernoetan graduatua Deutuko Unibertsitatean, Chicagoko Univeristy of Illinois-en masterra egin zuen Espainiar Hizkuntzalaritzan eta gaztelerako eskolak ere eman zituen garai hartan. Azken bi ikasturteetan Etxeapre Euskal Institutuko irakurle sareko kide izan da, Chicagoko Unibertsitatean. Unibertsitate horretan gaztelerako eskolak ere eman ditu. Bere lan ildo nagusiak dira: hizkuntzaren jabekuntza eta elebitasunaren prozesatzea haurretan. Donostiako Basque Center on Cognition, Brain and Language (BCBL) BabyLab-en ere aritu zen ikertzaile laguntzaile gisa.



José Mª Muñoz López



Iasone Parada Garmendia

(Orereta, 1986) Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean. Hiru urtez EiTBko errealizazio departamentuan lan egin ostean, Cubako Escuela Internacional de Cine y TeleVisión-en (EICTV) arte zuzendaritzako goi mailako tailerrean titulaturik. 2011tik ArteDrama Arte Eszenikoen Plataformako kidea da eta bere lan esparru berezitua ekoizpena: proiektuen eramailletza, administrazioa eta kudeaketa. Antzezlanak sortu eta hedatzeaz gain, jaialdi eta formakutza tailerren antolaketan aritzen da; beti ere euskaraz eta Euskal Herriko lurralde guztietan.



Oxel Uribetxebarria Lete

Euskal Filologian lizentziatu zen 2006an EHUn. Ondoren, Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologia masterrean Debagoieneko testu zaharrak ikertu zituen. Bere ikerketa interes nagusiak euskal filologia, hizkuntzaren historia eta dialektologia dira. Psikolinguistika gaiak ezagutzeko aukera ere izan du: 2005-2006 ikasturtean Lankidetza Bekari esker hizkuntz jabekuntzaren gaineko ikerketa batean eta 2007-2008an Gogo Elebiduna ikertaldean lan eginez. Euskara eta gaztelania irakaslea izan da Hungarian, SZTE eta ELTE unibertsitateetan, eta egun EHUn dihardu. Une honetan Aziti Bihia elkarteko diruzaina da.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2021-05-03 ARTE	2021-07-19 ARTE
GONBIDATUAK	0 EUR	-
OROKORRA	-	77,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA	-	65,00 EUR
MATRIKULA EXENTZIOA	-	54,00 EUR
ELKAR txarteldunak	-	65,00 EUR
Euskalategi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuko kide	-	65,00 EUR
DONOSTIA KULTURA MURRIZPENA	-	65,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2021-04-05 ARTE	2021-05-03 ARTE	2021-07-19 ARTE
GONBIDATUAK	0 EUR	-	-
OROKORRA	-	-	77,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA	-	-	65,00 EUR
MATRIKULA EXENTZIOA	-	-	54,00 EUR
ELKAR txarteldunak	-	-	65,00 EUR
Euskalategi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuko kide	-	-	65,00 EUR
DONOSTIA KULTURA MURRIZPENA	-	-	65,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa